



Atsegindegin lur azpira hiru pisu lituzkeen aparkalekua joango litzateke eta gaikaldean toki estali bat egin nahi da.

Atsegindegin lur azpiko 180 aparkaleku egiteko proiektua Hazienda Batzordera dijoa bihar

■ Haziendak proiektua onartzen badu, proposamena seguruenen Plenora joango da ostegunean.

ATSEGINDEGIN lur azpiko parkina egiteko proiektuari buruz eztabaidatuko dute bihar Udaletxean, Hazienda Batzordean. Asmoa da lur azpiko 180 bat aparkaleku egitea Atsegindegin, 3 pisutan. Aparkalekuak Hernanin bizi edo lan egiten duen jendearentzat izango dira. Atsegindegi inguruan edo Kaxkoan bizi diren hernaniarrek izango dute aurrena preferentzia, eta gero, inguru horretan aktibitate ekonomikoaren bat dutenek.

10.500-12.000 euro artean
Garaje plaza bakoitza 10.500 eta 12.000 euro bitartean kostako da, eta Udalak 75 urterako jabetza emango dio garaje erostunari, Udalak bere

garaiari zabaldutako galdeketa baten arabera. Kondizio horietan Hernaniko 211 lagunek adirazi zuten garajea hartzeko pronto zeudela, Udalak egindako galdeketa horretan. 211 horietatik, % 44 Kaxkoan bizi direnak dira, % 45 zentro ingurukoak eta % 11 herriko beste tokietakoak.

Toki estalia

Atsegindegiko proiektuak bi parte ditu. Bata lur azpiko aparkalekuak dira eta bestea leku estalia. Asmoa da Atsegindegin toki estali bat egitea herriko hainbat ekitaldi egin ahal izateko.

Proposamena Hazienda Batzordean onartzen bada, osteguneko Plenora joango da gaia, seguruenen. □

GARAJEA HARTZEKO BALDINTZAK

- Kotxea nor bere izenean matrikulatua izatea.
- Hernanin bizi edo lan egitea.
- Inguruan garajerik ez izatea.
- Kotxea Hernanin alta emanda egotea.
- Zirkulazio baimena izatea.

* Baldintzak betetzen dituen jende kopurua garaje plazak baino txikiagoa bada, baldintzaren bat betetzen ez duen jendea ere onartuko da.

PREFERENTZIA GARAJEAK ADJUDIKATZEKO ORDUAN

- 1) Kaxkoa eta Atsegindegi inguruan bizi direnak (1, 2, 3, 6, 7 eta 8 zonalde urbanistikoetan bizi direnak). Etxebizitza bakoitzeko garaje plaza bat.
- 2) Kaxko eta Atsegindegi inguruan aktibitate ekonomikoaren duten komertziantek, profesionalak eta industrialak.
- 3) Hernanin bizi direnak.
- 4) Inguruko lokal bateko langileak.

HAUTESKUNDEAK

Kandidaturak aurkezteko azken eguna gaur

PARTIDU eta plataformek gaur dute azkeneko eguna Hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko. Dagoeneko, Hernanin hiru kandidatura aurkeztu dira, eta beste bik agindu dute aste honetan emango dituztela alkategaien izenak. Alderdi Sozialistak aurkeztu zuen aurrena eta Jose Morcillo da bere alkategaia. Gero, Bildu Hernani plataformak Mertxe Etxeberria alkategai izatea erabaki zuen astearte gauean, eta asteazkenean EA-EAJk iragarri zuen Joxan Rekondo dela koalizio buru.

IU-EB eta PPK ere konfirmatu dute Hernaniko alkatezarako kandidaturak aurkeztuko dituztela, eta seguruenen aste honetan izango da horien berri. Aralar eta Zutik ez dira aurkeztuko.

Dantzari Festa antolatzen laguntzeko bilera

MAIATZAREN 3tik 10era Dantzari Festa egingo da Hernanin eta antolatzaileek herritarrei laguntza eskatu diete. Laguntza maiatzaren 4an (igandean) behar da batez ere, egun horretan etorriko baitira Hernanira Euskal Herri osoko dantzariak. Egun horretan, antolatzaileek espero dute 300 lagun inguru etortzea eta laguntza eskatu dute aulkia eta mahaia jartzeko, jana banatzeko eta abar.

Nola lagundu hitz egiteko, Dantzari Festako antolatzaileek bilera deitu dute asteazken honetan (apirilak 23) Biterin, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzaileek Dantzari Festarekin interesatuta dauden guztiak gonbidatu dituzte. □

'Disco Hop' Oialumen

GAUR arratsaldean disko festa izango da Oialumen, *Disco Hop* disko-jartzailearekin. □

Hernaniko kronika laguntzaile:



ORAUNE PROMOCIONES

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK

Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46
Hernani



Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsorok Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Argitarapen honen laguntzaile:




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Allianz

ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109



Chillida-Leku museoa ostiral arratsaldean. Egun horretan orain arteko marka guztiak hautsi ziren.

Chillida-Lekun 5.000 turista baino gehiago izan dira Aste Santuan

■ Ostiralean, 2.400 pertsonak bisitatu zuten museoa, egun bakarrean historian izan duen bisitari gehiena ■ Kanpoko turista gehienak katalanak eta frantsesak dira.

ASTE Santuan, Chillida-Leku izan da dudarik gabe Hernanin jende gehienak bisitatu duen lekua. Ostegunetik larunbatera bakarrik, 5.000 lagun inguru izan ziren Eduardo Chillida eskultorearen museoa. Eta Ostiral Santu egunean egun bakarrean orain arte izan den jenderik gehiena bildu zen: 2.400 lagun. Ostegunean eta larunbatean, berriz, 1.300 pertsona bildu ziren egun bakoitzean.

Edade eta era guztietako publikoa ibili da egunotan Hernaniko museoa. Familia osoak, gazte koadrilak, jende edadetuagoa eta abar. Batzuk beren kasa ikusten dute artista ezagunaren lana, eta beste batzuk nahiago dute gia baten argibideak entzunez bisitatu museoa.

Chillida-Lekuk emandako datuen arabera, katalanak eta frantsesak izan dira kanpoko bisitari gehienak. Udaran, berriz, joera aldatu egiten omen da, eta, batez ere, turista alemanek bisitatzen dute Zabalagako museoa. Chillidaren obrak estimazio handia du Alemanian eta hori da jende gehiena hangoa izatearen arrazoi nagusia.

Chillidaren Uneak erakusketa ekainaren 30 arte
Chillida-Lekuk, eskultorearen lanak ez ezik, erakusketa bereziak ere izaten ditu. Ekainaren 30 arte egongo dena *Uneak* izeneko erakusketa da. Chillidaren marrazki, bozeto eta zenbait eskulturez gain, artista bere sormen lanean ari

deneko argazkiak biltzen ditu erakusketak.

Gaur 19:00ak arte zabalik
Chillida-Leku bisitatu nahi duenak gaur zabalik izango du goizeko 10:30etatik arratsaldeko 19:00ak arte, Aste Santuan ordutegi berezia izan du-elako. Gainerakoan, 10:30etatik 15:00ak arte egoten da zabalik, eta asteartetan itxita egoten da. Helduentzako sarrera 6 euro da, eta ikasle, jurbilatu edo umeentzat 3,75 euro. Taldean joan ezker ere deskontuak daude.

Museoa gia baten argibideak entzunez ikusi nahi duenak aurretik hots egin behar du. Ordu eta laurdeneko bisita izaten da, 4,25 eurotan.

☎ 943-336006. □



Eduardo Chillidare 'Uneak' erakusketak ere bisitari asko izan zuen Zabalaga baserrian.

Hitzorduak-en mozioa ostegunean dijoa Plenora, 633 pertsonen babesarekin

■ Hitzorduak kolektiboak dei egin die herritarrei joateko Plenora ■ Plenoa arratsaldeko 19:00etan da.

HITZORDUAK kolektiboak mozio bat aurkeztuko du ostegun honetako Plenoan, proiektu, idea eta pertsona guztien askatasuna aldarrikatzeko. Hitzorduak kolektiboak urte hasieran jarri zuen mar txan inizatiba hori maiatzeko hauteskunderi begira. Hitzorduen ustez, egoera asko gaiztotzea ekarri dute PP eta PSE-EEko zinegotzien kontrako mehatxuek, eta Batasunaren ilegalizazioak.

Hitzorduek zenbait bilerara publiko deitu zituzten zer egin eta gaiari nondik heldu azeritzeko, eta 633 hernaniarrek firmatu dute bilera horietan adostutako testua. Orain Plenora joango da.

Mozioaren lema eta oinarria da: *proiektu guztiak, ideia guztiak, pertsona guztiak*. Hi-

tzorduen mozioak dio pertsonen funtzeko eskubideak errespetatu eta defenditu behar direla. Era berean, adierazten du giza eskubideak aintzakotzat hartzen dituzten proiektu politiko guztiak direla zilegi eta denek behar dutela aukera bera.

Oinarri horretatik abiatuta, Hitzorduen mozioak 3 puntu planteatzen ditu:

1) Alderdi guztiak baldintza berdinetan aurkezteko modua izatea Udal Hauteskundera,

2) Aukeratutako kargu publikoek bere karguaren jabe egiteko aukera izatea.

3) Kargu publikoek ez izatea inolako eraso eta persekuziorik bere idea politikoengatik eta har ditzakeen erabaki politikoengatik. □

Pirineotara irteera maiatzean

MENDIRIZ Mendik 4 eguneko mendi irteera antolatu du Pirineotara Maiatzaren 1eko zubirako. Eguraldiak lagun-tzen badu behintzat, hirumilako bi mendi igoko dituzte, Clarabide (3.020 m) eta Bardamina (3.083 m). Eguraldi txarra edo elur txarra badago, inguruko beste mendi batzuk igoko dituzte.

Maiatzaren 1ean goizeko 06:00etan aterako dira Atsegindegitik, eta Estos-seko aterpera joko dute, Clarabide dagoen bailarara. Clarabide ez da berez mendi zaila, baina, desnibel handia du eta elur dezente egon liteke. Hurrengo

egunean, Bardamina igotzeko plana dago. Mendiriz Mendiren esanetan, mendi hori aurrekoa baino gogorragoa da, luzeagoa delako eta aldapa haundiagoak dituelako.

Mendiriz Mendik dio, mendi irteera horretara behar-beharrezkoa dela elurretarako materiala eramatea.

Izena emateko epea zabalik dago eta apirilaren 28an bukatuko da. Prezioa, 90 euro FEFMEko federatuentzat, 120 EMFko federatuentzat eta bazkide ez direnentzat 10 euro gehiago. Prezioan sartzen dira bidaia eta 3 eguneko loa, gosaria eta afaria. □

MUS TXAPELKETAK

Repekako mus partidak Aralarren

■ Peña Otañon final laurdenak jokatu dira eta Xalapartan zabalik dago izen ematea.

ARALAR tabernako mus txapelketan, repeskako partidak jokatu dira datozen hiru asteetan. Aste honetan, asteazkenean eta ostegunean dira partidak. Asteazkenean, apirilaren 23an: Jabier-Pello/ Antonio-Luis Mari; Joseba-Inaxio/Pako-Pantxo; Teo-Manol/ Isidro-Jimeno; Peliziano-Martin/ Axier-Jokin. Ostegu-

nean, apirilaren 24an: Iñaki-Alex/Xabier-Iñaki; Julio-Mantxa/Villar-Joxe; Iñaki-Joxe Ramon/Manu-Mati; Joseba-Simon/Zezi-Bitxo.

Bestalde, Xalaparta elkar-tean asteazkenean bukatuko da txapelketan izena emateko epea. Peña Otañon, berriz, final laurdenak jokatu dituzte ostiralerako. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak:
943 550093
► Udaltzaingoa:
943 333288
► DYA:
943 464622
► Anbulatorioa:
943 006666
► Jokalari anonimoak
943 331103

⚡ FARMAZIAK

ASTELEHENA

► Egunez: Bilbao-Sagastiberri
Urbieta 7
☎ 943 552941

► Gaez: Bilbao-Sagastiberri
Urbieta 7
☎ 943 552941

ASTEARTEA

► Egunez: Chucla Kardaberaz 48
☎ 943 551793

► Gaez: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B
☎ 943 366567